

Ikastaroak

Euskal Etxeak hiruhilekoak diren tailer eskaintza zabala du. Tailerretan parte hartu ahal izateko **bazkide izatea ezinbestekoa da**; horretaz gainera **hiruhilekoak 30€ balio du** (ordubeteko ikastaroentzako, luzeagoak badira proportzioan igoko da matrikula):

- Trikitixa
- Pandero
- Txalaparta
- Dantza
- Bertso eskola
- Mus



Tailer batek aurrera egin dezan gutxienez 6 ikasle matrikulatu beharko dira bertan. Izena emateko azken eguna **irailaren 20a** da. Tailerrak **urriaren 7tik aurrera** hasiko dira. Ikasleak etor daitezkeen ordutegiak ikusi ondoren ezarriko dira tailerren ordutegiak. Behin matrikulatuta, gutxienerako kide kopurura iritsiko ez bagina edo etorri ezingo bazina, ordaindutako matrikula itzuliko genizuke.

Taldeak

Gure elkarteak badu talde iraunkor bat ere, txikitatik dantzan aritu diren neska-mutilek osatutakoa. Taldeko partaide izateko ez da baldintzarik bete behar, baina bazkide egitea eskertzen da, Euskal Etxeak zein taldeak dituzten gastuei aurre egiteko:

- Dantza taldea



Matrikulatu, informazio gehiago eskatu edota tailer berriren bat proposatu nahi izanez gero, pasa zaitezte kultur etxetik, **933102200**ra deitu edo idatzi barcelona@euskal etxea.org helbidera.